

GAUTENAKO HEZKUNTZA BEREZIKO GELA EGONKORREN IREKIERA SALATU DU STEILASEK

Gautena autismoaren espektroko nahastea duten pertsonen senideen elkarte da, Gipuzkoako ikastetxe pribatuetan fisikoki kokatuta dauden hezkuntza bereziko gela egonkorrak hitzartuta dituen. Ikastetxe horiek eskatu ez duten arren, Gautenak bere ikasgela egonkorretako batzuk irekitzea erabaki du gaurtik aurrera.

Irekiera hori salatu nahi du STEILASEk, hainbat arrazoirengatik:

- Gainerako ikastetxe pribatu zein publikoek ez dizkiete ikasgela egonkorrak ireki ikasleei, deseskaladaren hirugarren fasean ez dagoelako horretarako legezko estaldurarik. Gautenak bere erabakia justifikatu du, Hezkuntza Bereziko ikastetxe bat dela argudiatuz, maiatzaren 23az geroztik ireki dezaketena, baina, egia esan, bere gelak ikastetxe arruntetan erabat integratuta daude. Ezin da bi hegaletan jokatu. Steilasek ez du ulertzen nola Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak ezberdintasun horiek ematea ahalbidetzen duen.
- Oso zaila da gela egonkorretako ikasleek COVID 19 kutsatzearen aurkako gutxieneko babes-neurriak errespetatzea. Oso konplikatu da distantzia, maskara eta abar mantentzea, eta arriskuan jartzen da ikasleen eta langileen osasuna. Gure ustez, baldintza horietan oso zaila da hezkuntza zerbitzua aurrera eramatea, eta arriskua ez da beharrezkoa ikasturtea amaitzeko egun batzuk bakarrik falta direnean.

STEILASEk zuzentzeko eta baldintza horietan ikasgela egonkorrak ez irekitzeko eskatu dio Gautenari. Horretan jarraituz gero, hezkuntza-zerbitzua ikasle eta langile guztientzat osasun-berme guztiekin eta ahalik eta ikasle gutxien izanda eskaintzeko exijitzen diegu.

HEZKUNTZAN STEILAS!

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus